

PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





AZALPENAK

Iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak. Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak. Atal honetan, 3 problema aurkeztuko dira. Ikasleak 2 hautatu behar ditu, eta egin. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

TEST MODUKO 10 GALDERA, hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra zuzena; guztira 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzarengatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango ez kenduko. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inoiz negatiboa izango.

Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzari dagokion balioa eta zuzentzeko irizpideak letra etzanez ageri dira letra-tamaina txikiagoan.

GALDERA TEORIKOAK

1. Azaldu ezazu zein den **deslokalizazioaren** esanahia, eta aipa ezazu enpresa bat kokatzeko unean zer eratako faktoreak hartu behar diren kontuan. *(0,5 puntu esanahia eta 1 puntu faktoreak)*
2. Defini ezazu **enpresaren heltze-aroa** kontzeptua, eta azaldu ezazu zein den **kostu finkoen eta aldakorren arteko desberdintasuna**. *(0,75 puntu definizioa eta 0,75 desberdintasunen azalpena)*

**PROBLEMAK**

Ebatzi hiru problema hauetatik bi.

1. Inbertsio-aukera hauek eman dira:

	0 Urtea	1 Urtea	2 Urtea
Aukera 1	-15.000	10.000	15.000
Aukera 2	-10.000	5.000	8.000

a) Zein inbertsio aukeratu behar litzateke **berreskuratze-epea edo Pay back** irizpidearen arabera? (0,5 puntu).

b) Eta **balio eguneratu garbiaren** irizpidea erabiliz? Kontuan edukita diruaren kostua % 2 dela (1 puntu).

c) Bietatik, zein da irizpide egokiena? Arrazoitu erantzuna (0,5 puntu).

2. ZAPA enpresak, urtarrilean, mugimendu hauek erregistratu ditu biltegian:

<u>DATA</u>	<u>MUGIMENDUAK</u>	
01/01	Hasierako izakinak	2.000 unitate 30 €/u.
04/01	Salmentak	1.500 unitate 45 €/u.
07/01	Salmentak	500 unitate 50 €/u.
09/01	Erosketak	1.000 unitate 31 €/u.
14/01	Erosketak	2.000 unitate 34 €/u.
19/01	Salmentak	1.500 unitate 50 €/u.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu biltegiako fitxa batez besteko prezio haztatuaren (BPH) eta FIFO balorazio-metodoak erabiliz. (2 puntu balio du problemak; errakuntza bakoitza 0,3 punturekin zigortuko da).

BILTEGI-FITXA

IRIZPIDEA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA:



3. Enpresa batek ondare-elementu hauek ditu:

Kapital soziala	130.000 €
Makineria	140.000 €
Hornitzaileak	40.000 €
Bezeroak	40.000 €
Informatikako prozesu-ekipoak	20.000 €
Eraikinak	80.000 €
Erreserbak	30.000 €
Bankua k/k	60.000 €
Epe luzeko zorrak	160.000 €
Izakinak	60.000 €
Epe laburreko zorrak	40.000 €

Hau eskatzen da:

- a) Aurkeztu ezazu egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta (1 puntu):
- Pasiboaren ondare-elementu bat edo ondare-masa bat aktiboan jartzen baduzu, edo alderantziz, atal honek 0 balioko du.
 - Ez dagokion masa batean jartzen duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,20 puntu galduko duzu.
 - Inongo ondare-masatan sartzen ez duzun ondare-elementu bakoitzagatik 0,10 puntu galduko duzu.
 - Atal honetan lortzen den azken puntuazioa ez da inoiz ere negatiboa izango.
- b) Kalkula ezazu maniobra-funtsa. (0,5 puntu).
- c) Azaldu ezazu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu).

TEST MODUKO GALDERAK

1. Noiz da progresiboa zerga bat?

- a) Zerga-oinarririk txikiena daukanak gehien ordaintzen duenean.
- b) Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala denean.
- c) Zerga-tasa zerga-oinarria bezalaxe aldatzen denean.

2. Zein sektoreri dagokio arrain-kontserbak egitea helburu duen enpresa bat?

- a) Lehenari.
- b) Bigarrenari.
- c) Hirugarrenari.

3. Zertan dihardute Giza Baliabideen Saila osatzen duten lagunek?

- a) Enpresak behar dituen pertsonak aukeratzen eta hezten.
- b) Finantziario- eta inbertsio-iturririk onenak bilatzen.
- c) Produktua merkaturatzeko zereginetan.



4. Zer da segurtasuneko stock deritzana?

- a) Biltegi batean gorde daitekeen material baten izakin kopururik handiena.
- b) Biltegi batean gorde behar den material baten izakin kopururik txikiena.
- c) Eskatera-bolumenik onena.

5. Honako egoera hauetatik, zeinek islatzen du sistema ekonomiko eraginkor bat dagoela?

- a) Ez dago jenderik lanik ez duenik.
- b) Ondasun baten unitateren bat gehiago egin daiteke, beste baten produkzioa gutxiagotu gabe.
- c) Ondasun baten unitate bat gehiago egiteko, beste baten produkzioa gutxiagotu beharra dago.

6. Zer da enpresa baten merkatu-kuota?

- a) Banaketa-kanal baten bidez estaltzen den eremu geografikoa.
- b) Haren salmentek adierazten duten proportzioa merkatu jakin batean produktu batek dituen salmenta guztiekiko.
- c) Ekitaldi batean lortutako salmenten gehikuntza aurreko urtekoarekiko.

7. Honako erabaki hauetatik, zein dagokio "Marketing Mix" izeneko produktu-politikari?

- a) Biltegien kokapena.
- b) Produktuaren ezaugarri teknikoak.
- c) Salmenta sustatzeko kanpainak.

8. Zelan deitzen zaio bezeroak premia homogeneoko taldetan zatitzeari?

- a) Segmentazioa.
- b) Marketina.
- c) Merkatuan kokatzea.

9. Zer da ordainketak etetea?

- a) Kaudimen-gabeziako egoera; izan ere, enpresaren ondarea ez da nahikoa zergapetzen duten zor guztiei erantzun ahal izateko.
- b) Epe laburreko desoreka finantzarioko egoera; hartan, enpresak likidezia-arazoak ditu, pasibo zirkulatzaila aktiboa baino handiagoa delako.
- c) Defizit-egoera bat kontabilitate-liburuak era legalean ez eramateagatik.

10. Enpresak onuraren zati bat erreserbetarako gordetzen duenean, nolako finantziazio-iturria da hori?

- a) Berarena.
- b) Besterena, epe luzerakoa.
- c) Aldi baterako mailegua.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

EBAZPENA: ENPRESAREN EKONOMIA (2013ko maiatza)

GALDERA TEORIKOAK

- 1. Deslokalizazioa:** Enpresek bere dibisio ezberdinak zonalde geografiko desberdinetan ekoizpen baliabideak hobeto aprobetxatzeko, garraio eta lan kostuak gutxitzeko asmoz,.. kokatze prozesuari deitzen zaio.

Enpresa bat kokatzeko unean faktore hauek hartu behar dira kontutan:

Komunikazio eta garraioak: ondo komunikatuta dagoen leku batean kokatuta egon behar da enpresa: autopistatik, aireportutik eta itsas portutik gertu ahal bada.

Eraikuntzaren eta orubearen kostua: prezioa ez da izaten berdina leku guztietan eta herrialde batetik bestera asko aldatzen da.

Legegintza: arau legalak ondo ezagutu behar dira eta baita ere nola lortu diru laguntza publikoak.

Inbertsioaren kostua eta finantza erakundeek dirua lortzeko aukera hoberena ematen duten lekuetan kokatu behar dira.

Eskualdearen ekonomia garapena, aukeratzen den eskualdearen garapena baloratu egin behar da, honela enpresaren etorkizuna zein izan daiteke ikusi ahal izango dugu.

- 2. Heltze aroa:** Enpresa ekoizpen prozesuan inbertitu duen dirua berreskuratzeko behar duen denbora da; hots, lehen gaiak (izakinak) erosten direnetik gure produktuen salmentak kobratzen ditugun denbora edo zikloa egiteko normalean behar duen egun kopurua.

Kostu finkoak: ekoizpen bolumenarekin aldatzen ez direnak dira. Adibidez lokalaren errenta.

Kostu aldakorak: ekoizpen bolumenarekin aldatzen direnak. Adibidez lehengaien erosketen kostua.

Dena den, bereizketa hau bakarrik epe laburrean egin daiteke.

Kostu orokorra = Kostu finkoak + Kostu aldakorak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

PROBLEMAK

1. a) Pay Backaren irizpidea kontuan hartuz, urte 1 eta 120 egun bete beharko luke lehenengo aukerak hasierako ordainketa berreskuratzeko; eta urte 1 eta 225 egun beharko luke bigarren aukerak hasierako ordainketa berreskuratzeko. Lehenengo inbertsioa aukeratu beharko luke, denbora gutxien behar duelako hasierako ordainketa berreskuratzeko.

b)

Balio Eguneratu Garbia

$$BEG = -D + \frac{F1}{(1+i)} + \frac{F2}{(1+i)^2} + \frac{F3}{(1+i)^3}$$
$$BEG_1 = -15.000 + \frac{10.000}{(1+0.02)} + \frac{15.000}{(1+0.02)^2} = 9.221,45$$
$$BEG_2 = -10.000 + \frac{5.000}{(1+0.02)} + \frac{8.000}{(1+0.02)^2} = 2.591,31$$

Lehenengo inbertsioa aukeratu beharko luke, kontuan hartuta denbora pasatuz diruak balioa galtzen doala eta enpresak inbertsioei eskatzen dion gutxieneko errendimendua, gaur egungo balioetan 3.749,99€ko irabaziak lortuko zituelako, beste inbertsioa baino gehiago.

c) BEG irizpidea método dinamikoa da, denborarekin diruak balioa galtzen duela kontuan hartzen duena.

Pay Back-arena, aldiz, método-estatikoa da, baliogalera kontuan ez duena hartzen. Errealagoa BEG irizpidea da, beraz egokiagoa ere.

2.

BILTEGI FITXA

BALORAZIO METODOA: Batez besteko prezio haztatuaren (BPH)

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa
01-01	Hasierako izakinak							2.000	30	60.000
04-01	Salmentak				1.500	30	45.000	3.500	30	15.000
07-01	Salmentak				500	30	15.000	0	---	0
09-01	Erosketak	1.000	31	31.000				1.000	31	31.000
14-01	Erosketak	2.000	34	68.000				3.000	33	99.000
19-01	Salmentak				1.500	33	49.500	1.500	33	49.500

IZAKINEN BALIOA: 49.500€
UNITATE KOPURUA: 1.500

BILTEGI FITXA

BALORAZIO METODOA: F.I.F.O.

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa
01-01	Hasierako izakinak							2.000	30	60.000
04-01	Salmentak				1.500	30	45.000	3.500	30	15.000
07-01	Salmentak				500	30	15.000	0	---	0
09-01	Erosketak	1.000	31	31.000				1.000	31	31.000
14-01	Erosketak	2.000	34	68.000				1.000	31	
								2.000	34	99.000
19-01	Salmentak				1.500	1.000x31 500x34	48.000	1.500	34	51.000

IZAKINEN BALIOA: 51.000€

UNITATE KOPURUA: 1.500



3. a)

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Aktibo ez korrontea	240.000	Ondare Garbia	160.000
Eraikuntzak	80.000	Kapital soziala	130.000
Makinaria	140.000	Erreserbak	30.000
Informatikako Prozesu Ekipoak	20.000		
Aktibo korrontea	160.000	Pasibo ez-korrontea	160.000
<u>Izakinak</u>	<u>60.000</u>	Epe luzerrako mailegua	160.000
Lehengaiak	60.000		
<u>Merkataritza-zordunak eta ...</u>	<u>40.000</u>	Pasibo korrontea	80.000
Bezeroak	40.000	Epe laburreko mailegua	40.000
<u>Erabilgarria</u>	<u>60.000</u>	Hornitzaileak	40.000
Bankuak	60.000		
AKTIBOA GUZTIRA	400.000	Hornitzaileak	400.000

b) Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi Pasibo ez korrontek finantzatzen du Aktibo korrontean zati bat.
Maniobra-funtsa = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare Garbia + Pasibo ez-korrontea) - Pasibo ez korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 160.000 – 80.000 = (160.000 + 160.000) – 240.000 = 80.000 euro

c) Azaldu enpresaren finantza-egoera, maniobra-funtsaren arabera. (0,5 puntu). Aktibo korrontea handiagoa da pasibo korrontea baino. Maniobra-funtsa positiboa izateak adierazten du enpresak finantza-oreka bat duela eta ordainketak eteteko arriskurik ez dagoela. Ondo finantzatuta dagoela, eta seguraski ez duela arazorik izango ordainketei aurrera egiteko epe laburrean, pasibo ez korrontea. Ondare garbiak gehi Pasibo ez korrontek finantzatzen du Aktibo korrontean zati bat.

TEST MODUKO GALDERAK

Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.

1. c)	2. b)	3. a)	4. b)	5. c)
6. b)	7. b)	8. a)	9. b)	10. a)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	3.81.1, 1.3, 1.4
2	2
Problemak	
1	2.12
2 a)	2.24, 2.25
2 b)	
2 c)	
3 a)	3.3, 3.5, 3.7
3 b)	
3 c)	